

Hori urrunegi doa!

Ximun: Josebari gertatu zaiona ezin sinetsia da!

Sara: Hori egin diotenak zinez **ASTOAK** dira!

Kattin: Zer gertatu zaio bada, Josebari?

Ximun: Ez duzu oraino jakina? **OSPITALERA** joan da, Aitorren taldekoek muturra hautsi baitiote!

Kattin: Baina, zer gertatu da?

Ximun: Jostaldi guzietan bezala, berriz ere, besteek nardatu dute, baina oraingoan, Joseba leporaino aseba zen eta Aitor iraindu du. Ondorioz denak haren kontra jarri dira eta, bistan da, **bakarrik**, ez zuen bere burua zaintzen ahal.

Kattin: Zer koldar taldea! Eta nehork ez ditu geldiarazi ahal izan?

Sara: Hastapenean, nehor ez zen menturatzen haien artean sartzera, denak haren beldur baitziren. Baina memento baten buruan, neska bat joan da zaintzailearen bila. Hark geldiarazi ditu, baina Joseba jadanik larriki **ZAURITUA** zen.

Kattin: Gaixoa! Txarrena da **ez zela horrelakorik gertatuko hastapenetik denek haren defentsa hartu balute**. Egia da, badu aspaldi denek nardatzen dutela, eta ez du sekula nehork defendatu.

Ximun: Arrazoi duzu, Kattin. Hori guzia pixka bat gure **FALTAZ** gertatu da. Ikasle batek horrelako talde baten erasoak jasaten dituelarik, **lagundu behar litzateke**, edo heldu bati aipatu, zerbait larri gertatu aitzin.

Sara: Hasteko, Aitorrek eta bere lagunek gaitzeko zigorra ukanen dute! Entzun dudanaren arabera, ikastolatik kanporatuak izaten ahal lirateke...

Kattin: Ederki merezia izanen dute! Baina anartean, Joseba gizagaixoa ospitalean da haiengatik!

Ximun: Preseski, pentsatzen dut menturaz karta bat igortzen ahal geniokeela gela guziaren izenean. Zer iduritzen zaizue?

Sara: A, bai! Hori ideia bikaina da, Ximun.

Itzulpena: Maialen Bidegain

